

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburuko "Arkaiate" 12. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketaren behin betiko onespena**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2018ko apirilaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburuko "Arkaiate" 12. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketaren behin betiko onespena.

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburuko "Arkaiate" 12. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketaren proiektua ikusi da, zein Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egin duen, 2017ko abuztuan.

2017ko abuztuaren 4ko probidentzia bidez, Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak hasiera eman zion gorago aipatutako plan partzialaren xedapen-aldaketaren tramitazioari, eta ingurumen-organoari bidali zion ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiten hasteko eskaera, aldaketaren zirriborroarekin eta ingurumen-agiri estrategikoarekin lagunduta.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2017ko abenduaren 20an emandako ebazpenean jaso da Gasteizko Arkaiate 12. sektorearen plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketaren inguruko ingurumen-txosten estrategikoa, eta bertan zehazten da ez dela aurreikusten ingurumenaren kontrako kalte azpimarragarriarik eta, horrenbestez, ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar (2018ko urtarrilaren 15eko EHAA, 10. zk).

Indarrean dagoen plan partzialaren aldaketa honek trenbidearen gainean oinezkoentzako pasabidea eraiki ahal izatea du xede, Nebera gaina eta Arkaia herria Errekaleor ibaiaren korridorearekin lotzeko eta oro har 12. sektorearekin. Pasabidea jartzeak plan partzialean aurreikusitako antolamendu xehatua aldatzera behartzen du. Hauexek dira aldaketa nagusiak:

- Berdegune berri bat sortuko da, 5.542 m<sup>2</sup>-koa.
- Komunitateko ekipamenduetarako azalera gutxitu egiten da (8.898 m<sup>2</sup>izatetik 3.080 m<sup>2</sup> izatera pasatzen da).
- Pasabideko joan-etorriak ez oztopatzeko, lekuz aldatzen da egoitzetarako RCP17 lursaila, ipar-mendebaldeko ertzetik hego-mendebaldekora; zuzkidura-lursailak – aurrekoa baino azalera txikiagokoa – hasiera batean RCP17 lursailerako zen lekuan hartuko du.

Proiektuan jasota geratu ziren honako alderdiak: aldakuntzaren xedea, ekimena, aurrekariak, egungo eremua eta egoera, formulazioaren bidezko tasuna, lege-oinarria, aldaketaren helburuak, irizpideak eta aukerak, proposatutako aldaketak, indarrean dagoen plangintza eta aldatua, plan orokorrean zehatutako parametroen eta zuzentzaruen betetzea, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa, iraunkortasun ekonomikoaren oroit-idazkia, indarrean dauden planoak eta aldatuak, eta eragin akustikoari buruzko azterlana jasotzen duen eranskina

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburuko "Arkaiate" 12. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketa, zein Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egin duen, eta dosierra jendaurrean jarri zuen ikusgai.

Erabaki hori 2018ko otsailaren 9an argitaratu zen ALHAOn 17. zk., eta baita 2018ko otsailaren 2ko Diario de Noticias de Álava egunkarian ere, plan partzialaren aipatutako xedapen-aldaketa jendaurrean jartzeko asmoz, hartara, eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharrak aurkezterik ere; denbora-tarte horretan ez da alegaziorik batere aurkeztu izan.

Arkaiako administrazio-batzarrari ere eman zitzaion erabakiaren berri, hogeit eguneko epean txostena egin zezan; Epe hori igaro delarik ez da ebazpen edo erantzunik jaso eta, horrenbestez, izapiderekin aurrera jarrai daiteke.

Plan partzialek Plan Orokorrek edo lurzoru urbanizagarria sektoretan banatzeko dagokion planek mugatutako sektore baten antolamendu xehatua egiten dute, Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 67. artikuluekin bat. Lege horren 68. artikulua plan partzialen edukia eta hori formalizatzeko agiriak arautzen dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. eta 96. artikuluetan xedatzen da plan partzialak izapidetzeko eta onesteko araudia.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berri-kuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikulua ildotik.

Proposatzen den antolamenduarekin bat etorritz —dosierreko hirigintza agirietan justifikaturik dago horren komenigarritasuna eta egokitasuna— eta aipatu diren araudiak aintzat harturik, Hirigintza Batzorde honek, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hala proposaturik, erabaki proposamen hau egiten dio Udalbatzari:

#### Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburuko "Arkaiate" 12. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketa, zein Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egin duen, 2017ko abuztuan.

2. Erabakia argitaratzea. Erabaki honen aurka, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabete epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, errekurtsua ezesten

duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena us-tezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Halaber, argitara ematea aldaketa honen eduki osoa jendeak kontsultatzeko moduan para-tuko den erreferentzia elektronikoa, hauxe:

[https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=con-tenido&idioma=es&uid=u\\_171b1dd7\\_161b7b525e0\\_7f08](https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=con-tenido&idioma=es&uid=u_171b1dd7_161b7b525e0_7f08)

### Aldatutako arauak

#### 38. artikulua


...

Soinu-inpaktuari buruzko alderdi orokorrak.

Ezinezkoa delarik Kalitate Akustikoko Helburuak betetzea, 213/2012 Dekretua betearazteko, ezin izango da eraikuntza-lizentziarik eman, aurretiaz ez bada sektorea baitan hartuko duen babes akustiko bereziko gunee bat deklaritzen.

Gainera, 10 zenbakiko planoan (Eraikuntzaren bestelako baldintzak), fatxadetako isolamen-du-balioak jasotzen dira, barruko espazioetan kalitate akustikoko helburuak lortzeko, zein defi-nitu diren Eraikuntzaren Kode Teknikoaren DB-HR zarataren aurreko babesari buruzko Oinarrizko Agirian (EKT-DB-RH gatelaniaz) jasotako D2m, nT, Atr indizearen arabera (aireko zaratarekiko isolamendua barruti babestu eta kanpoaren artean).

Balore horiek justifikatu egin beharko dira eraikinen burutzapen-proiektuan, non adierazi beharko diren erabiliko den beira eta zura-mota, horien bidez bete ahal izateko barruan soinu-maila horiek, kontuan hartuta fatxadaren bao-azalerak eta barne-gelen dimentsioak.



Koadro honetan laburbiltzen dira, metro koadrotan, eta kalifikazioen arabera, azalera-aldeak:

LURSAILA	HASIERAKO AZALERA	AMAIERAKO AZALERA	ALDEA
RCP 17	1.859,00	1.859,00	0
RCP 18	2.152,00	2.152,00	0
AD	1.167,16	1.167,00	0
ELP 2	291	291	0
ELP 10	0	276,3	276,3
ZV 11	0	5.542,10	5.542,10
EM 5	8.898,00	3.079,60	— 5.818,40
<b>Guztira</b>	<b>14.367,16</b>	<b>14.367,16</b>	<b>0</b>

Gasteizen, 2018ko apirilaren 24an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**